

## Egoera ekonomikoa eta Merkatuak **ASTEKO LABURPENA**

2020ko abuztuaren 10etik 14rako astea

---


### ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

### ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

### ➤ **GURE IKUSPEGIA**

### EUROGUNEA: PMIak



### Datuaren analisia


Osasun ekonomikoaren adierazletzat jotzen den Euroguneko PMI indize konposatuak erakutsi du Euroguneko susperraldiak indarra galdu duela, eguneko kutsatze-kasuen gorakadak eta Covid-19ari aurre egiteko hartutako neurri berriek eraginda. Adierazlea 51,6 puntutan kokatu da, aurreko hileko 54,9 puntuen aldean; bi hilabeteko daturik txarrena. Osagai bakoitzari begira, zerbitzuen sektoreko indizea 50,1 punturaino jaitsi da, geldialdiaren mugan, uztaileko 54,7 puntutik. Manufakturen PMIa, aldiz, 51,7 puntutan kokatu da, aurreko hileko 51,8aren aldean. Eskualdeka, Frantziako datuak espero baino okerragoak izan ziren; izan ere, manufaktura-datua atzeraldian sartu zen, eta zerbitzuena 5 puntu baino gehiago jaitsi zen. Alemaniako manufakturen PMIa izan zen ezusteko positiboa eman zuen bakarra, 53 puntura igo baitzen aurreko hileko 51tik.

### Adierazlearen azalpena

Euroguneko zerbitzuen eta manufakturen sektoretako 5.000 enpresari baino gehiagori hilero bidaltzen zaien galdetegi baten erantzunetatik lortzen da PMI Konposatua. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: Erosketen kudeatzaileen indizea



### Datuaren analisia

Filadelfia eta New Yorkeko enpresen konfiantzaren datuak espero baino gehiago jaitsi ziren abuztuan, eta, horregatik, analista batzuek manufakturen PMIaren hurrengo datua puntu eta erdi jaitsiko dela aurreikusi dute, 52,5eraino, hedapen-mailan oraindik ere.

New Yorkeko Fed-en enpresen konfiantzaren kasuan, 3,7ra jaitsi zen abuztuan, uztaileko 17tik eta ekonomistek aho batez aurreikusitako 15 puntuen oso azpitik. Adierazlearen oztopoa agindu berrien osagaia izan zen nagusiki. Alde positiboan, enpleguaren osagaiak gora egin zuen, eta otsaileko mailan kokatu zen.

Abuztuan, Filadelfiako Fed-en manufakturen indizeak 6,9 puntu egin zituen behera, 17,2 punturaino (vs uztaileko 24,1 puntuak). Beraz, adierazleak bigarren hilabetez jarraian egin zuen behera.

### Adierazlearen azalpena

Filadelfia eta New Yorkeko Erosketa Kudeatzaileen Indizeak (PMI: Purchasing Manager's Index) hilero 250 enpresabururi egiten zaien inkesta bat du oinarri, Filadelfia eta New Yorkeko manufaktura-sektoreari buruzko galderak biltzen dituena. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 0etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

**AEB: Banku Zentralen azken bileretako aktak.**



### Datuaren analisia

Atlantikoaren bi aldeetan, Banku Zentralen azken bileretako aktek agerian jarri dute erakundeak kezkatuta daudela, pandemiak eragindako atzeraldi ekonomikoaren susperraldia moteltzen ari delako. FEDek adierazi du maiatzean eta ekainean enpleguak izandako gorakada azkarrak moteltzera egin duela, eta lan merkatuak beste "hobekuntza nabarmen" bat izateko, enpresen jarduera "modu zabal eta iraunkorren" ireki beharko litzatekeela berriro. Gainera, jakin denez, bi kidek baino ez zuten kontrolatu nahi izan tasen kurba, eta merkatuak ziurtzat jotzen zuen hori. Hala ere, egoerak eskatzen badu, politika moldakorragoa izan daitekeela ere adierazi zuen. Bestetik, EBZren zalantzarik handienak inbertitzailearen egungo sentimenduaren sendotasunaren eta erresilentziaren gainean kokatu ziren. Tasak eta zorra erosteko programak (APP eta PEPP) bere horretan mantentzeaz gain, PEPPk bere moneta-politika behar bezala transmititzeko duen malgutasuna nabarmendu zuen. Hala ere, adierazi zuen 1,3 bilioi euroko gehieneko zenbatekoa gastu-muga bat dela gastu-helburu bat baino.

### Adierazlearen azalpena

Banku zentralen aktak banku-erakundeetako ordezkariak azken bilera egin eta hurrengo asteetan argitaratzen dira. Batzordearen diru-politikari buruzko bileraren erregistroak dira. Gainera, diru-politikaren inguruan bankuek duten jarrerari buruzko informazio zehatza eskaintzen dute. Analistek eta inbertitzaileek arretaz aztertzen dute informazio hori, intere-tasen inguruko etorkizuneko erabakien emaitzari buruzko zantzuak aurkitzeko.

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
08/24	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	3.70
08/25	Alemania	GDP SA QoQ	-% 10.1
08/25	Alemania	IFO Business Climate	92.1
08/25	Estatu Batuak	Conf. Board Consumer Confidence	93.0
08/25	Estatu Batuak	New Home Sales	785k
08/25	Estatu Batuak	Richmond Fed Manufact. Index	10
08/26	Frantzia	Consumer Confidence	94
08/26	Estatu Batuak	Durable Goods Orders	% 4.5
08/27	Eurogunea	M3 Money Supply YoY	% 9.2
08/27	Estatu Batuak	GDP Annualized QoQ	-% 32.5
08/27	Estatu Batuak	Initial Jobless Claims	1000k
08/27	Estatu Batuak	Continuing Claims	14400k
08/27	Estatu Batuak	Pending Home Sales MoM	% 2.0
08/27	Alemania	Retail Sales MoM	% 0.5
08/28	Japonia	Tokyo CPI YoY	% 0.6
08/28	Alemania	GfK Consumer Confidence	1.0
08/28	Frantzia	CPI YoY	% 0.1
08/28	Frantzia	GDP YoY	-% 19.0
08/28	Espainia	Retail Sales YoY	--
08/28	Italia	Consumer Confidence Index	101.0
08/28	Eurogunea	Economic Confidence	85.0
08/28	Eurogunea	Consumer Confidence	--
08/28	Estatu Batuak	Personal Income	-% 0.4
08/28	Estatu Batuak	PCE Deflator MoM	% 0.4
08/28	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	72.8

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## ERRENTA ALDAKORRA

Emaizta mistoak burtsa-indizeetan, AEBetan tonu hobea gainerako eskualdeetan baino (beherakada apalekin). Orokorrean, inbertitzaileak kezkatuta agertu dira, orain arte irmoa zen susperraldi ekonomikoa geldotzen hasi delako azken asteotan, garatutako ekonomia nagusietan kutsatuen kopuruak gora egin duelako. FEDen eta EBZren azken bileren aktek ere ziurgabetasun hori islatu dute, eta PMlen argitalpenak Euroguneko hazkundeak abuztuan indarra galdu duela erakutsi du. Egoera horretan, merkatuek oraindik ez dute katalizatzaileak aurkitu murgilduta dauden sendotze-fase horretan aurrera egiteko. AEBetan, bestalde, oraindik ez dute zerga-pizgarrien plana martxan jartzeko akordiorik lortu, nahiz eta aurreikusitako kopurua 500.000 milioi dolarreraino jaitsi litekeela esaten den. Bestalde, Trumpek tentsioaren sua piztu zuen beste behin: akordio komertziala berrikusteko Txinarekin zuen bilera bertan behera utzi zuen, lanpostuak atzeritik itzultzen ez dituzten AEBetako enpresei muga-zerga gehigarriak ezartzeko mehatxua egin zuen eta murrizketa komertzialak enpresa txinatar berrietara zabalduko dituela iragarri zuen. Hala ere, txertoen inguruko albisteak baikorrak izan dira, eta merkatuak baretzen lagundu zuten. Teknologia geldiezin jarraitzen du, maximo berri bat lortuz. Sektore horrek bultzatu ditu, hain zuen ere, Estatu Batuetako indizeak. Nolanahi ere, S&P 500 indizeak astean gora egin duen arren, balore gehiagok egin dute beherantz gorantz baino. Ibex indizea izan da beste behin kaltetuena balore turistikoaren eraginpean egoteagatik, mugikortasunaren murrizketa-neurri berriak hartuko direnaren beldur.

## ERRENTA FINKOAK:

Arrisku-aktiboek erakutsi duten ahultasunak zor alemanaren errentagarritasunaren beherakada sakondu du. Hamar urterako errentagarritasunak dagoeneko -% 0,5eko maila gaintu du. Europako periferikoaren errentagarritasunek behera egin dute, baina arrisku-primek pixka bat gora egin dute. AEBetan, FEDen aktek eragindako gorakada txikia eta burtsaren tonu hobea gorabehera, hamar urterako zorraren errentagarritasunak nabarmen egin du behera.

## DIBISAK / LEHENGAIK:

Euroaren balioak pixka bat behera egin du dolarren aurrean, astean 1,19 \$/€ mailara heldu ostean. Neurri gehigarriak hartuko ez dela iradokitzen zuten FEDen aktek eta PMlen datu ahulek kotizazioaren norabidea aldatu zuten, eta 1,179 \$/€ mailan amaitu zuen astea. Halaber, Euroguneko dibisak % 1eko balioa galdu zuen yenaren aurrean; dirudienek, azkenaldian babes-moneta bihurtu dena. Aldakortasun handia errearen balioan. Izan ere, 2.000 \$/ontza maila gaintu zuen, Estatu Batuetako meatze batean Buffet-ek dituen posizioen gorakadak eta dolarren ahuleziak bultzatuta. Baina dibisa amerikarren norabide aldaketaren ondorioz, 1.950 \$/ontza mailaraino jaitsi zen. Petrolioak, bestalde, ia % 1 egin zuen behera.


INDIZEAK	2020/08/21	Aldaketa Ald 2020 Astea	
IBEX	6.982,10	-% 2,41	-% 26,88
EUROSTOXX 50	3.259,75	-% 1,37	-% 12,96
ALEMANIA	12.764,80	-% 1,06	-% 3,65
INGALATERRA	6.001,89	-% 1,45	-% 20,43
FRANTZIA	4.896,33	-% 1,34	-% 18,10
ITALIA	21.526,69	-% 1,63	-% 16,01
S&P 500	3.397,16	% 0,72	% 5,15
DOW JONES	27.930,33	% 0,00	-% 2,13
NASDAQ 100	11.555,16	% 3,50	% 32,31
NIKKEI 225	22.920,30	-% 1,58	-% 3,11
SHANGHAI	3.380,68	% 0,61	% 10,84
MSCI WORLD	2.392,11	% 0,33	% 1,43
MSCI GORAKORRAK	1.091,85	-% 0,12	-% 2,05

Gobernuen tasak	2020/08/21	Aldaketa Ald 2020 Astea	
2 urte			
ALEMANIA	-0,68	-4	-8
ESPAINIA	-0,47	-2	-8
AEB	0,14	0	-143
5 urte			
ALEMANIA	-0,70	-7	-23
ESPAINIA	-0,25	-4	-18
10 urte			
ALEMANIA	-0,51	-9	-32
ESPAINIA	0,30	-6	-17
AEB	0,63	-8	-129

Kreditu-spreada (op)	2020/08/21	Aldaketa Ald 2020 Astea	
ITRX EUROPE (5A)	55,10	#iVALOR!	11
ITRX EUR XOVER (5A)	333,58	#iVALOR!	127

Dibisak	2020/08/21	Aldaketa Ald 2020 Astea	
\$/€	1,18	-% 0,41	% 5,20
Yen/€	124,82	-% 1,03	% 2,50
gbp/€	0,90	-% 0,33	% 6,44

Lehengaiak	2020/08/21	Aldaketa Ald 2020 Astea	
BRENT	43,51	-% 0,96	-%34,49
URREA	1.940,48	-% 0,24	% 27,89



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.